



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06



KONTROL MOZIOA

Harri Berri-Oleta ikastetxe ondoko partzelaz

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2025eko urriaren 20an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Altzako Kasares plazako ingurunea asko eraldatu zen kiroldegi berriaren obren ostean, baita Harri Berri-Oleta ikastetxea Arriberri Etxetaldearekin lotzen duen bidea egokitu ostean ere; lan hauei esker auzuneak asko irabazi zuela bistakoa da, Altzako zati honek auzo-bihotz atsegina izatera bidean. Aipatu lanen proiektuak aurrea egin ahala, baina, proiektua “partzelatu” eta aurreragorako utzi zen Harri Berri-Oleta ikastetxeari itsatsita dagoen partzelaren (Kasares pasealekuko plazoletaren) egokitzapena. Eginiko katen arabera, azken partzela honetan (ITEM 5 eta 6a hartzen dituen) amiantoa zegoela baieztatu zen (ingurune osoan bezala), eta oztopoa omen zen proiektuarekin aurrera egiteko. Beraz, Kasares plazoletako eraldaketa alde batera utzi zen, Eusko Jaurlaritzak eman beharreko baimenak eman arte.

Geroztik, eskola ondoko partzelak 6-7 urte itxita eman ditu, auzunearen bi zatien arteko igarobide naturala izan dena erabilezin utziz. Arrazoi honegatik, 2024ko otsailean EH Bilduk kontrol mozioa aurkeztu zuen, eta urte bereko ekainean mozio arrunta, biak ala biak udalbatzan onartuak, partzela honetan egin beharreko lanak egin zitezen eta eman beharreko baimenak behingoz eman zitezen eskatuz. Hala ere, partzelak eraberritu gabe jarraitzen du eta bitartean, denboraren eta naturaren poderioz, partzelaren egoerak nabarmen okerrera egin du, auzunearen erdi-erdian den espazio hau sasiak janda utziz. Esan beharra dago, azken partzela honen eraldaketak Harri Berri-Oleta eskolari sarrera berria eman ahal liokeela, kiroldegira eta tartean dagoen plazara irtenbidea emanaz haurrei. Horrela, eskolako bi eraikinen, kiroldegiaren eta kulturetxearen artean gelditzen den gunea espazio bizigarriagoa litzateke auzotarrentzat eta seguruagoa haurrentzat, ikastetxeak eta auzoak kualitatiboki irabaziz. Bada garaia, auzoko



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia
IFK/CIF P2007400A / TEE/REL 01200697
10655n I 2011-06



hiru ekipamenduak lotuz eta bi auzuneak artikulatuz, *gutxietsia* sentitu den Auzoari plaza berritua itzultzeko.

Esan bezala, urteak joan eta urteak etorri, partzela ukitu gabe (eta degradatzen) ikustez nazkatuta, hamarnaka auzotarrek auzolanean partzela txukuntzea erabaki zuten duela gutxi, horrekin batera 1.100 sinadurako eskaria erregistratuz, eta auzotarren lanak suspertu du berriz ere espazio honekiko atentzioa zein urgentzia: jakin dugu Eusko Jaurlaritzaren Industria, Trantsizio energetiko eta Jasangarritasun Sailaren baimena abendurako iritsi daitekeela, eta horren ostean, hurrengo hilabeteetan lanen esleipena egin ahalko lukeela Donostiako Udalak. Hala izan ezean, berriz ere sasiak jango du auzotarren artean garbitutako partzela.

Honekin guztiarekin, zenbait eskari eta konpromiso hartzea ezinbestekoa iruditzen zaigu, auzoan premiazkoak diren lan hauek gehiago luzatuko ez direla bermatzeko eta eraldaketa honetan auzotarren iritzia kontuan hartuko dela ziurtatzeko.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jarrai dezala Eusko Jaurlaritzari partzelan egin beharreko lanak egiteko behar diren baimenak eskatzen.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2026an burutu ditzala partzela eraldatzeko lanak.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari partzela eraldatzeko proiektuak jaso ditzala auzotarren eta ikastetxearen iritzia eta ekarpenak.

Donostian, 2025eko urriaren 23an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia